

Herrialde-txostena: Irlanda

**basque
trade &
investment**

2020ko abendua

+ Erresuma Batuko eta Irlandako bulegoa

+ Adimen Lehiakorreko Unitatea



**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO
spri
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
BASQUE GOVERNMENT



EDUKIEN AURKIBIDEA

1. DATU OROKORRAK	4
2. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA	5
3. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA	6
3.1. Abagune ekonomikoa	6
3.2. Balantza komertziala	6
3.3. Atzerriko inbertsioa	7
3.4. Enplegua	7
3.5. Perspektiba ekonomikoak	8
4. KANPO-MERKATARITZA	10
5. ALDEBIKO HARREMANAK	12
5.1. Euskadiren eta Irlandaren arteko merkataritza	12
5.2. Euskadiren posizionamendua	14
5.3. Aldebiko inbertsioak	14
6. SEKTORE NAGUSIAK	15
6.1. Ekarpina BPGari	15
6.2. Negozio-aukerak	17
7. NAZIOARTEKO HARREMANAK	18
7.1. Nazioarteko kidetasunak	18
7.2. Merkataritza-akordioak	18
8. ASKOTARIKO ARRISKUAK	19
8.1. Herrialde-arriskua	19
9. ONDORIOA	20
10. ERREFERENTZIAK	21



TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: Hazkunde adierazleak	6
2. taula: Kanpo-merkataritzaren adierazleak (2014-2019)	7
3. taula: Irlandak gehien esportatutako produktuak (2019)	11
4. taula: Irlandak gehien inportatutako produktuak (2019).....	11
5. taula: Euskadiren eta Irlandaren arteko merkataritza (2015-2019)	12
6. taula: Euskadik Irlandara gehien esportatutako produktuak (2018)	13
7. taula: Euskadik Irlandatik gehien inportatutako produktuak (2018).....	13
8. taula: Bizkaiak Irlandatik eginiko inportazioak	13
9. taula: Euskadiren ezarpenak Irlandan, gaur egun	14
10. taula: BPGari eginiko ekarpena sektoreka	15
11. taula: Irlandarentzat potentzial inportatzailea duten sektore garrantzitsuenak (ITC)	17
12. taula: COFACEren herrialde-arriskuaren balorazioa	19

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa: Irlandaren perspektiba ekonomikoak Covid-19aren ostean (2018-2022).....	8
2. grafikoa: Irlandaren bezero diren herrialde garrantzitsuenak (2019)	10
3. grafikoa: Irlandaren hornitzaile diren herrialde garrantzitsuenak (2019)	11
4. grafikoa: Euskadiren eta Irlandaren arteko merkataritzaren bilakaera (2015-2019)	12
5. grafikoa: Euskadiren pisua Espainiaren esportazioetan, 2015-2020 (%)	14



➔ 1. DATU OROKORRAK



Gobernua	Biztanleria	Geografia
<p>Estatuaren izena: Irlandako errepublika</p> <p>Gobernu mota: Errepublikak parlamentarioa</p> <p>Estatu burua: Michael D. Higgins presidentea</p> <p>Lehen ministroa: (<i>Taoiseach</i>) Micheál Martin</p>	<p>Biztanleria guztira (2020): 4.941.444 pertsona</p> <p>Hazkunde naturala(2019): % 1,5</p> <p>Hirietako biztanleria (2019): % 63,4</p> <p>Hizkuntza ofiziala: Irlandera (gaelikoa), 55.000tik gora pertsonarentzat euren lehen hizkuntza da (batez ere mendebaldean). Ingelesa da <i>de factoko</i> hizkuntza ofiziala. Dokumentu ofizialak bi hizkuntzetan inprimatzen dira.</p> <p>Negoioetarako hizkuntza: Ingelesa.</p> <p>Hiriburua: Dublin.</p> <p>Beste hiri batzuk: Dublin, Cork, Galway, Limerick, Waterford.</p> <p>Txanpona: Euroa</p>	<p>Klima: klima ozeaniko epela, 9 eta 11°C bitarteko urteko batez besteko tenperaturarekin.</p> <p>Baliabide naturalak: zinka, beruna, gas naturala, kobrea, igeltsua, kareharria, lur bituminosoa eta dolomia.</p>



Ekonomia	Beste batzuk
<p>BPGa (2020ko balioespina): 399 mila milioi USD²</p> <p>Per capita BPGa (2020ko balioespina): 79.000 USD</p> <p>BPGaren hazkundera (2020ko balioespina): % -3,0</p> <p>Urteko inflazioa (2020ko balioespina): % -0,2</p> <p>Langabezia-tasa (2020ko balioespina): % 5,6</p> <p>Ondasunen esportazioak (2019): 169.640 USD</p> <p>Zerbitzuen esportazioak (2019): 238.566 USD</p> <p>Ondasunen inportazioak (2019): 99.849 milioi USD</p> <p>Zerbitzuen inportazioak (2019): 321.095 USD</p>	<p>I+G-ko gastua (2018, BPGaren %a): % 20</p> <p>Internet erabiltzaileak (2017): % 94</p> <p>GGI (2018): 0,916/1 Mundu mailako GGI sailkapeneko postua: 6/188</p>

Iturriak: IMF, The World Bank, Santander Trade

¹ Santander Trade (2020ko abendua): Irlanda- aurkezpen orokorra

² Santander Trade (2020ko abendua): Irlanda: Politika eta ekonomia. Testuinguru ekonomikoa. "Abagune ekonomikoa". <https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/irlanda/politica-y-economia>



2. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA

Irlandako Errepublika 1921ean sortu zen estatu independente gisa. Urte hartan bertan erabaki zen botere banaketan oinarritutako (betearazlea, legegilea eta judiziala) errepublika parlamentarioa izango zela. Konstituzioak arautzen du egitura hori.

Estatu-buruaren papera ohorezkoa eta zeremoniala baino ez da. Gaur egun, 2011. urteaz geroztik, Michael D. Higgins dago kargu horretan, zeina Irlandako bederatzigarren presidente bihurtu baitzen Mary McAlesse ordezkatzuz. Aipatzekoa da kargu hori herriaren zuzeneko boto bidez aukeratzen dela eta 7 urteko agintaldia duela. Eta behin bakarrik berrautatu daiteke.

Gobernu-burua da Lehen Ministroa (gaelikoz, *Taoiseach*). Kargu horretako agintaldia 5 urtekoa da eta nahi adina aldiz berrautatu daiteke. Azken hauteskunde orokorrak 2020ko otsailaren 8an egin ziren, eta urte bereko ekainaren 27tik Micheál Martin da gobernu-burua (*Fianna Fail*).

Historikoki, bi alderdi izan dira nagusi Irlandako politikan: Fianna Fail (zentroa, zentro eskuina, populista) eta Fine Gael (zentro eskuina, sozialki moderatua eta fiskalki kontserbadorea). Biek aplikatzen dituzte politika ekonomiko eta sozial kontserbadoreak, baina jarrera desberdinak dituzte Irlanda eta Erresuma Batuaren arteko independentzia itunari dagokionez. Halere, badaude alderdi politiko gehiago, hala nola, alderdi laborista, Renua Irlanda, berdeak, Sinn Fein edo alderdi sozialista.



3. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA

3.1. Abagune ekonomikoa

Krisi ekonomikoa kolpe latza izan zen Irlandarentzat, eta Europar Batasunak eta Nazioarteko Diru Funtsak erreskatatu egin behar izan zuten 2013aren amaieran. Harrezkero, hazkunde ekonomiko ona izan du eta berau da Europan azkarren hazten ari den ekonomia. Halere, hazkunde hori moteldu egin da azken hilabeteotan Erresuma Batuaren EBko irteeratik eta Covid-19aren pandemiagatik.

Finantza publikoak hobetu egin dira azken urteotan, eta zor publikoa apur bat murriztu da. Gainera, inflazioa kontrolatuta dago eta bankuak kaudimentsu eta errentagarri bihurtu dira. Halaber, aipatzekoa da Irlandak *per capita* errenta altua duela, 66.000 eurotik gorakoa izatera iritsi zena 2018an. Dena den, gorago azaldu bezala, Erresuma Batuaren irteerak hainbat arrisku dakartzat berarekin, eta datu hauek asko aldatu daitezke Brexiterako negoziazioen emaitzen arabera.

Aurrerago azalduko den moduan, Irlandako ekonomiak menpekotasun handia du Brexiteretik, Erresuma Batua delako Irlandaren bigarren bazkide komertzial handiena eta bi herrialdeek lurreko muga bat dutelako.

1. taula: Hazkunde adierazleak^{3 4}

HAZKUNDE EKONOMIKOAREN ADIERAZLEAK	2018	2019	2020 (e)	2021(e)	2022 (e)
BPGa (mila milioi USD)	386,63	398,06	399,06	457,52	492,05
BPGa (urteko hazkundearen %, prezio konstantea)	9,3	5,9	-3,0	4,9	4,3
<i>Per capita</i> BPGa (mila USD)	79	80	79	90	96
Inflazio-tasa (%)	0,7	0,9	-0,2	-2,4	-0,5

Iturria: NDF, World Economic Outlook Database, 2020ko urria

3.2. Balantza komertziala

Irlanda uharte batean kokatutako herrialde txiki bat da, tradizionalki migratzailea eta protekzionista. Halere, azken hamarkadetan ekonomia irekiagoa bihurtu da, hots, atzerriko inbertsioan oinarritua eta ez du halako menpekotasunik inguruan duen potentzia handiarekiko, Erresuma Batuarekiko.

³ NDF (2020ko abendua): Santander Trade: <https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/irlanda/politica-y-economia>

⁴ NDF (2020ko urria): World Economic Outlook Database. Ireland. https://www.imf.org/en/Publications/WEO/weo-database/2020/October/weo-report?c=178,&s=NGDP_R,NGDP_RPCH,NGDP,NGDPD,PPPGDP,NGDP_D,NGDPRPC,NGDPRPPPC,NGDP,NGDPD,PPPGDP,PPPSH,PPPEX,NID,NGDP,NGSD,NGDP,PCPI,PCPIPCH,PCPIE,PCPIEPCH,TM,RPCH,TMG,RPCH,TX,RPCH,TXG,RPCH,LUR,LE,LP,GGR,GGR,NGDP,GGX,GGX,NGDP,GGXCNL,GGXCNL,NGDP,GGSB,GGSB,NPGDP,GGXONLB,GGXONLB,NGDP,GGXWDN,GGXWDN,NGDP,GGXWDG,GGXWDG,NGDP,NGDP_FY,BCA,BCA,NGDPD,&sy=2018&ey=2025&ssm=0&scsm=1&sc=0&ssd=1&ssc=0&sic=0&sort=country&ds=.&br=1



2. taula: Kanpo-merkataritzaren adierazleak (2014-2019)

Kanpo-merkataritzaren adierazleak	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Ondasunen inportazioa (milioi USD)	73.089	71.336	75.385	93.198	107.614	99.849
Ondasunen esportazioa (milioi USD)	118.908	120.439	128.085	164.871	164.871	169.640
Zerbitzuen inportazioa (milioi USD)	145.054	151.556	191.939	200.597	218.030	321.095
Zerbitzuen esportazioa (milioi USD)	158.626	157.863	173.821	180.006	205.294	238.566
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa (BPGaren %)	92,0	93,2	105,2	99,0	89,2	112,4
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa (BPGaren %)	110,0	122,0	120,8	121,0	122,3	126,8
Balantza komertziala (milioi USD)	57.768	125.778	113.891	123.714	133.535	137.469
Balantza komertziala (zerbitzuak barne) (milioi USD)	46.180	96.215	68.649	75.812	127.122	56.227
Kanpo-merkataritza (BPGaren %)	202,0	215,1	226,0	220,0	211,5	239,2

Iturria: Merkataritzaren Munduko Erakundea, Munduko Bankua eta Santander Trade; eskuragarri dauden 2020ko azken datuak

3.3. Atzerriko inbertsioa

Irlanda merkatu txikia da, baina baditu atzerriko inbertsioarentzat erakargarri diren hainbat ezaugarri. Lehenik eta behin, Europar Batasuneko *per capita* errenta handieneko herrialdeetako bat da, eta bigarrenik, ekonomia oso dinamikoa du, kanpo-merkataritzari oso irekia.

Aurrerago badago gai hori sakonago lantzen duen atal bat, baina orain herrialdearen bazkide komertzial garrantzitsuenetako batzuk azpimarratuko ditugu: Erresuma Batua Irlandaren bigarren bazkide komertzial handiena da, eta lehen postuan Estatu Batuak daude. Halere, Europar Batasun osoa bezero bakartzat hartuz gero (Erresuma Batua kanpoan utziz, berriki atera delako), bloke komertzial hori izango litzateke herrialdearen bazkide komertzial garrantzitsua, AEBekiko alde handiarekin.

Bestalde, hauek dira Irlandak gehien inportatzen dituen produktuak: aireko ibilgailuak, material biologikoak, botikak, petrolioak eta bere eratorriak, eta automobilak. Material biologikoak, botikak eta gailu medikoak esportatzen ditu batez ere.

Ekonomia hain irekia izaki, menpekotasun handia du nazioarteko testuinguru eta krisiekiko. Horregatik, Irlandakoa izan zen azken atzeraldi ekonomikoak gogorren kolpatu zuen ekonomietako bat.

Irlanda Europar Batasunaren, Nazioarteko Diru Funtsaren eta Europako Banku Zentralaren finantza-laguntzen programan egon zen 2013. urtera arte. Programa horrek erreforma estrukturalak egiteko eta aurrekontuak doitzeko hainbat neurri finkatu zituen, zeintzuei esker Irlandako ekonomia gai izan baitzen aurrera egiteko eta enplegua sortzen hasteko. Aipatzekoa da herrialdeak Europa osoko hazkunde ekonomiko handienetako bat izan duela azken urteotan.

Dena den, ezin ditugu baztertu Brexitak Irlandako ekonomian izan ditzakeen ondorioak. Azken urteotan azterlan asko egin dira jakiteko Erresuma Batuen irteerak nolako eragina izango duen Irlandan, eta txosten gehienek ondorio negatiboak aurreikusten dituzte. Hala ere, kontuan hartu behar da etorkizuneko akordio komertzialak negoziazio-prozesuan daudela, eta akordio horiek baldintzatuko dutela Irlandako ekonomiaren etorkizuna.

3.4. Enplegua

Enpleguaren zifrak asko hobetu dira azken urteetan. Kontuan hartzen bada Irlandako Estatistika Bulego Zentralak (An Phiriomh- Oifing Staidrimh) 2020aren hasieran eginiko txostena eta alderatzen bada 2019ko azken hiruhilekoa aurreko



urteko hiruhileko berarekin, ikusten da enplegua % 3,5 hazi zela 2.361.200 lanposturaino iritsiz. Urte bereko (2019) bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, ageri da hazkundera % 2,3koa izan zela.

Enpleguaren gorakada horren arrazoia da lanaldi osoko kontratazioak asko ugaritu direla, enplegu berri guztiaren % 60 mota horretako kontratuak direlarik, eta sortu diren 80.000 lanpostuetatik 30.400 bakarrik izan dira lanaldi partzialekoak.

NDFren datuen arabera, langabezia-tasa % 5,8tik % 5era murriztu da urte horietan (2018, 2019). Gainera, 2019ko azaroan % 4,8koa izan zen.

Aurreikuspenek zioten Irlandako lan-merkatuak ordura arteko joerari eutsiko ziola 2020an ere, errekorreko zifrak erregistratuz. Baina orain NDFk aurreikusten du Covid-19aren krisiak gogor eragingo diola langabezia-tasari. Espero da hazkunde handia izango duela 2020an, eta % 12,1eko zifrra irits liteke. Halere, aurreikuspenek diote tasa hori berriz jaitziko dela 2021ean, eta % 7,9 inguruan kokatuko dela.

3.5. Perspektiba ekonomikoak


Ekonomiaren bilakaeraren aurreikuspenak positiboak ziren Irlandarentzat. Pentsatzekoa zen Brexitaren prozesuak ondorio kaltegarriak izango zituela, baina Irlandak hartuak zituen hainbat neurri (politika fiskal zuhurra) kalte horiek ahalik eta txikiak izan zitezten.

Bestalde, herrialdeko erregimen fiskala oso abantailatsua denez atzerriko inbertsioarentzat, inbertsio asko jasotzen ditu, bai zuzenak eta baita ere zorrokoak. Baina inbertsio horiek nazioarteko testuinguruarekiko menpekotasun handia dute, multinazionalak egoera globalaren arabera hartzen dituztelako euren erabakiak.

Koronabirusaren pandemiak guztiz aldatu ditu Irlandako, Europako eta nazioarteko erakundeetako (adibidez NDF) agintariak egin zituzten hasierako aurreikuspenak. Covid-19ak sortu duen ingurune ziurgabeak eragina izan du Irlandako ekonomian, bai eta enpresa nazionaletan eta nazioartekoetan.

Grafiko honetan ikusten den bezala, uste da Irlandaren perspektiba ekonomikoak positiboak izango direla epe luzera, hau da, Brexitaren prozesua amaitzen denean, Erresuma Batuen eta Europar Batasunaren arteko harremanak definitzen direnean eta pandemia kontrolatzen denean. Hala ere, eta gorago azaldu bezala, 2020a urte zaila izan da Irlandarentzat eta bere ekonomiarentzat. Neurri handi batean, bi faktore hauek baldintzatuko dute herrialdeak suspertzeko behar duen denbora: Europar Batasunaren eta Erresuma Batuen artean finkatzen diren harreman komertzialek eta Covid-19aren bilakaera globalak.

1. grafikoa: Irlandaren perspektiba ekonomikoak Covid-19aren ostean (2018-2022)





Iturria: World Economic Outlook Update eta Santander Trade, 2020ko abendua



4. KANPO-MERKATARITZA


Irlanda oso ekonomia irekia da, horrexegatik du hain menpekotasun handia nazioarteko testuinguruarekiko, eta kaltebera da kanpoko krisien aurrean. Munduko Bankuaren arabera, Irlandako merkataritzak BPGaren % 210 ordezkatu zuen 2018an.

Hauek dira gehien inportatzen dituen produktuak: aireko ibilgailuak, material biologikoak, botikak, datuak eta informazioa automatikoki tratatzeko makinak, automobilak, petrolioia eta bere eratorriak. Bestalde, gehien esportatzen dituen produktuetakoz batzuk dira material biologikoak, botikak, produktu industrial gordinak eta gailu medikoak.

Irlandaren bazkide komertzial garrantzitsuenak Europar Batasuneko herrialde kideak dira, bai eta Estatu Batuak, Txina eta Suitza ere. Baina aipatzekoa da Erresuma Batua (lehen EBko kide zena) dela Irlandak egiten dituen inportazioen merkatu garrantzitsuen eta esportazioen bigarren merkatua. Horregatik, Irlandako Errepublikaren nazioarteko merkataritza Erresuma Batuen trantsizio-aldian gertatzen denaren arabera aldatuko da. Momentuz, aurreikuspenek diote liberak balioa galduko duela eta horrek ondorio larriak izango dituela Irlandako esportazioetan, lehiakortasuna galduko dutelako. Gainera, Estatu Batuen protekzionismoak eta bere erregimen fiskal berriak ere ondorio negatiboak izan ditzakete uharteko merkataritzan.

Hona hemen Irlandako kanpo-merkataritzaren jatorriko eta jomugako herrialde garrantzitsuenak.

2. grafikoa: Irlandaren bezero diren herrialde garrantzitsuenak (2019)




■ AEBak ■ Erresuma Batua ■ Belgika ■ Alemania ■ Herbehereak ■ Txina ■ Suitza ■ Frantzia ■ Italia

Iturria: COMTRADE, eskuragarri dauden azken datuak



3. grafikoa: Irlandaren hornitzaile diren herrialde garrantzitsuenak (2019)



Iturria: COMTRADE, eskuragarri dauden azken datuak

Hemen aurkezten ditugu Irlandak gehien esportatzen dituen produktuak (2019).

3. taula: Irlandak gehien esportatutako produktuak (2019)

PPRODUKTUA	MILIOI DOLAR	%
ESPORTATUTAKOA GUZTIRA		100
72. Burdinurtua, burdina eta altzairua	29.315,75	26,7
40. Kautxua eta bere manufakturrak	15.333,54	15,2
87. Automobilak eta traktoreak	7.921,52	7,8
84. Makina eta gailu mekanikoak	7.708,01	7,6
68. Harrizko manufakturrak, igeltsua	7.560,23	7,5
85. Gailu eta material elektrikoak	2.956,65	2,9
83. Metal desberdinen manufakturrak	2.439,59	2,4
73. Burdina edo altzairu galdaketako manufakturrak	4.660,45	4,6
22. Mota guztietako edariak (zukuak izan ezik)	4.883,21	4,8

Iturria: COMTRADE, eskuragarri dauden azken datuak

Hemen aurkezten dira Irlandak 2019an gehien inportatu zituen produktuak.

4. taula: Irlandak gehien inportatutako produktuak (2019)

PPRODUKTUA	MILIOI DOLAR	%
INPORTATUTAKOA GUZTIRA		100
28. Produktu kimikoak	309.387	41,9
33. Olio esentzialak; lurringintza	317.568,49	43,0
21. Askotariko elikagai prestatuak	45.555,79	6,2
87. Automobilak	7.610,48	1,0
72. Burdinurtua, burdina eta altzairua	16.310,15	2,2
03. Arraina, krustazeoak eta moluskuak	9.802,70	1,3
32. Taninoak; materia koloratzaileak; margoak	5.348,10	0,7
20. Barazki edo fruta kontserbak; zukuak	3.829,81	0,5
02. Okela eta errai jangarriak	2.617,75	0,4
29. Produktu kimiko organikoak	4.938,5	0,7

Iturria: COMTRADE, eskuragarri dauden azken datuak



5. ALDEBIKO HARREMANAK

5.1. Euskadiren eta Irlandaren arteko merkataritza

Irlandako Errepublikaren eta Euskadiren arteko harremanak onak dira. Azken hamarkadan, Euskadiko eta Irlandako ordezkariak behin baino gehiagotan elkartu dira. Azken bilera 2018ko maiatzean izan zen, eta Iñigo Urkullu lehendakariak harrera egin zien Irlandako lehen ministro Bertie Ahern jaunari eta Irlandako enbaxadore Sile Manguire andreari. 2016ko apirilean lehendakariak bilera bat izan zuen sasoi hartan Irlandako enbaxadore zen David Cooney jaunarekin.

Bestalde, bai Euskadi eta bai Irlandako “Northern and Western Regional Assembly” Uztai Atlantikoko Batzordeko kide dira.

Eskuragarri dauden azken datuen arabera, Irlanda 8. postuan dago Euskal Autonomia Erkidegoko inportazioen herrialdekako rankingean, eta Euskadiren esportazioei dagokienez, 38. postuan kokatzen da. Gainera, taula hauetan ikusten den bezala, kontuan hartzen badira probintzien arabeko kanpo-merkataritzaren zifrak, ageri da azken urteotan Bizkaia izan dela Irlandatik gehien inportatu duen probintzia.


5. taula: Euskadiren eta Irlandaren arteko merkataritza (2015-2019) ⁵

	2015	2016	2017	2018	2019
Esportazioak (mila euro)	87.170	88.399	124.439	100.368,79	101.154,14
Inportazioak (mila euro)	660.224	672.251	706.141	741.747,43	737.821,13
Balantza komertziala (mila euro)	-573.054	-583.852	-581.702	-641.378,64	-636.666,99

Iturria: EUSTAT

Ikus daitekeen bezala, Irlandarekiko balantza komertziala beti izan da defizitarioa Euskadirentzat. Grafiko honetan ageri dira Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Irlandaren arteko esportazio eta inportazioak.

4. grafiko: Euskadiren eta Irlandaren arteko merkataritzaren bilakaera (2015-2019)



⁵ Eustat. EA Eren eta Irlandaren arteko kanpo-merkataritza. https://www.eustat.eus/bankupx/pxweb/es/spanish/-/PX_4111_pa041m.px/table/tableViewLayout1/?rxid=802bbf22-e1b9-449a-859c-0ac726b09460



Iturria: EUSTAT

Hona hemen Euskadiren eta Irlandaren artean gehien esportatzen eta inportatzen diren produktuak.

6. taula: Euskadik Irlandara gehien esportatutako produktuak (2018)⁶

PPRODUKTUA	2018
GUZTIRA (mila euro)	
40. Kautxua eta bere manufakturak	14.319,32
27. ERREGAIK, OLIO MINERALAK	6.435,10
22. MOTA GUZTIETAKO EDARIAK (ZUKUAK IZAN EZIK)	4.326,25
48. PAPER, KARTOIA; BEREN MANUFATURAK	3.421,62
25. GATZA, IGELTSUA, LANDU GABEKO HARRIAK	2.772,63
39. MATERIAL PLASTIKOAK; BEREN MANUFATURAK	1.620,01
18. KAKAOA ETA KAKAOZKO PRESTATUAK	1.438,32

Iturria: DATACOMEX

7. taula: Euskadik Irlandatik gehien inportatutako produktuak (2018)⁷

PPRODUKTUA	2018
GUZTIRA (mila euro)	
33. OLIO ESENTZIALAK; LURRINGINTZA	338.512,01
38. BESTE PRODUKTU KIMIKO BATZUK	286.352,58
21. ASKOTARIKO ELIKAGAI PRESTATUAK	45.691,28
03. ARRAINA, KRUSTAZEOAK, MOLUSKUAK	8.475,44

Iturria: DATACOMEX

Inportazioei dagokienez, aipatzekoa da azken urtean Bizkaia izan dela Irlandatik gehien inportatu duen probintzia.

8. taula: Bizkaiak Irlandatik eginiko inportazioak

2017	2018	2019
664.173,02 (guztizkoaren % 23,7)	690.787,14 (guztizkoaren % 23,7)	682.793,64 (guztizkoaren % 25)

Aurreko atal batean ikusi dugun bezala, kontuan hartzen baditugu Espainiak Irlandara eginiko esportazioak, ondorioztatzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren sarpen-maila nahiko baxua dela, 38. postuan baitago. Hurrengo grafikoan ageri da nolako pisua duen Euskadik Espainiako esportazio guztietan eta Espainiak Irlandara eginikoetan.

⁶ DATACOMEX.


<https://comercio.serviciosmin.gob.es/datacomex/CabeceraPersonalizada.aspx?action=drilldown&eje=Filas&valor=Taric&unvalor=%5BTaric%5D.%5BTaric%5D&nivel=0&otroValor=total&otroNivel=0&id=1>

⁷ DATACOMEX

<https://comercio.serviciosmin.gob.es/datacomex/CabeceraPersonalizada.aspx?action=drilldown&eje=Filas&valor=Taric&unvalor=%5BTaric%5D.%5BTaric%5D&nivel=0&otroValor=total&otroNivel=0&id=1>



5. grafikoa: Euskadiren pisua Espainiaren esportazioetan, 2015-2020 (%)



Iturria: DATACOMEX

Azkenik, CIVEXek emandako datuen arabera, 53 euskal enpresak esportatzen dute Irlandara. Probintziaka, horietatik 8 Araban daude, eta 45 Bizkaian. Enpresa bat baino ez dago Irlandan kokatuta.

5.2. Euskadiren posizionamendua

Aurreko atalean aztertu bezala, Euskal Autonomia Erkidegoak nahiko posizio apala du Irlandan. Gure esportazioen pisua baxua da. Halere, Euskadiren Irlandako inportazioek gora egin dute azken urteotan. Gorakada hori Bizkaian gertatu da gehienbat, 2019an Espainiako gainerako probintziek baino gehiago inportatu baitzuen.

5.3. Aldebiko inbertsioak

Basque Trade-k dauzkan datuen arabera, enpresa bat baino ez dago Irlandan ezarpenen bat duena, eta hauxe da.

9. taula: Euskadiren ezarpenak Irlandan, gaur egun

ENPRESA	EZARPEN MOTA	HELBIDEA	ZERBITZUAK
Orona	Lantegia eta bulegoa	Dock Road Corcanree Business Park, Limerick 37, Millennium Trade Park, Cappagh Rd, Finglas West, Dublin, Irlanda	Garraiorako makinak eta jasogailuak Ingeniaritza agronomikoko zerbitzu integratuak

Iturria: BasqueTrade Office in London

Datu interesgarri gisa, Espainiako 34 enpresa daude Irlandan (Orona barne).



6. SEKTORE NAGUSIAK

6.1. Ekarpena BPGari

Hauxe da Irlandako BPGaren banaketa sektoreka, iturri nazionalen eta eskuragarri dauden azken datuen arabera.

10. taula: BPGari eginiko ekarpena sektoreka

SEKTOREA	GUZTIRA (BPGaren %)
BPGa GUZTIRA	100
Lehen sektorea	0,9
Bigarren sektorea	35,2
Hirugarren sektorea	56,7

Iturria: Santander Trade, eskuragarri dauden azken datuak

Hona hemen sektore desberdinak eta Irlandako ekonomian duten garrantzia:

- Lehen sektorea

Irlanda erdiak baino gehiagok nekazaritzan eta basogintzan egiten du lan. Gainera, Irlandako Ogasun Publikoak urtean 168 milioi euro inguruko inbertsioa egiten du sektore horretan. Nola uharte bat den eta 7.500 kilometroko kosta duen - bai eta bi ibai nagusi (Shannon eta Erne) eta hainbat urmael-, arrantza ere jarduera garrantzitsua da. Berdela, izokina, muskuilua, bakailoa, legatza eta, besteak beste, mariskoa esportatzen dira. 2018an, arrantzak 14.000 lanpostu inguru eta 1.150 milioi euro sortu zituen. Gainera, gobernuak jakinarazi du sektore horretako hazkundera indartu nahi duela, hemendik gutxira 6.400 milioi euro gainditzeraino (BPGaren % 2,4).

Oinarrizko sektorea izaten jarraitzen du Irlandako ekonomiarentzat, 173.000 lanpostu (enplegu guztiaren % 7,7) sortzen baititu, eta aurreikusten da zifra hori % 10-14raino haziko dela.

- Bigarren sektorea

Irlandako industria eta eraikuntza sektoreak BEGaren % 40 inguruko sarrerak sortu zituen 2018an. Gainera, sektore horrek 425.000 pertsona inguru enplegatzen ditu (biztanleria aktiboaren % 18,6 2018an).

Kontuan hartzen bada sektorearen osaera, fakturazio industrial osoaren % 40 sektore farmazeutikoari zor zaio, Irlandako sektore garrantzitsuenetako bat baita. Aipatzekoa da hamar enpresa farmazeutiko garrantzitsutik bederatzik presentzia dutela Irlandan, horrexegatik da herrialdeko ekonomiako sektore garrantzitsuenetako bat. 2014an 60.000 milioi eurotik gorako balioko botikak esportatu zituen, eta horrelako produktuen esportatzaile garbi handiena izan zen Europar Batasunaren barruan. Gainera, sektore hori hazten ari da, eta 2018an 86.100 milioi euroko esportazioak egin zituen, aurreko urtean baino % 27 gehiago. Azkenik, azpimarratzekoa da sektore hau dibertsifikatu egin dela Irlandan, eta produkzio-lantegiak dituela produktuen fase guztietarako.

Eraikuntza sektoreak, bestalde, krisi sakona iragan zuen 2007an, baina laster erdietsiko du azken urteetako puntu gorena, BPGaren % 11raino iritsiko delarik 270.000 langile baino gehiagorekin.



Aldiz, meatzaritza sektore txikia da, 4.000 pertsona inguru enplegatzen ditu eta 2018an 677.538 euroko fakturazioa izan zuen. Baina Irlanda da Europar Batasuneko bigarren zink ekoizle garrantzitsuen eta hamalagarren berun ekoizle garrantzitsuen.

Irlandak darabiltzan energia-iturriei dagokienez, aipatzekoa da energia berriztagarrien eta gas naturalaren erabilpena asko hazi direla (% 160 eta % 35 baino gehiago 2005etik, hurrenez hurren). 2017an honela erabili zen energia: % 21,3 industrian; ia % 43 garraioan; % 22 etxeetan eta ia % 12 erabilpen publiko eta komertzialean. Azkenik, Irlandak badu herrialdeko hiri garrantzitsuenak lotzen dituen sare bat, Ipar Itsasoko gasa eskuratzeko.

- **Hirugarren sektorea:**

Enpresa aktiboen kopuruari dagokionez, hauxe da herrialdeko sektore garrantzitsuen, eta hainbat jardura barne hartzen ditu: telekomunikazioak, garraioa, finantza jarduerak, komunikazioa, entretenimendua... Hala telekomunikazioak nola posta zerbitzuaren merkatua liberalizatuta daude.

Irlandako banku sektoreak baditu tokiko banku komertzialak, asko sufritu zutenak finantza krisian, eta baita ere Irlandan presentzia duten multinazionalekin lotutako banka, askoz globalagoa dena.

Teknologi zentro garrantzitsuak ditu, informazio eta komunikazio teknologien Europako zentroa delako. Sektore honek 37.000tik gora lanpostu sortzen ditu, eta bere esportazioak urteko 35.000 milioi eurokoak izaten dira.

Azkenik, aipatzekoa da badaudela beste sektore garrantzitsu batzuk, esaterako, leasing aeronautikoa (140.000 milioi euroko aktiboak kudeatzen dituen), software garapena (Irlanda bigarren postuan dago mundu mailan) eta produktu industrial eta aeroespazialen ingeniariak.



6.2. Negozio-aukerak

11. taula: Irlandarentzat potentzial inportatzailea duten sektore garrantzitsuenak (ITC)





7. NAZIOARTEKO HARREMANAK

7.1. Nazioarteko kidetasunak

Irlanda estrategikoki kokatuta dago Ipar Amerikaren eta Europa iparraldearen arteko aireko eta itsasoko ibilbide garrantzitsuetan.

Nazioarteko antolakunde askotako kidea da. Horietatik garrantzitsuenetako bat da Europar Batasuna (aurrerago hitz egingo dugu horretaz). Irlanda 1973an sartu zen ofizialki Europako Ekonomi Erkidegoan (egungo Europar Batasunean). Nazio Batuetako kide da 1955etik eta, ondorioz, Nazio Batuen Gutunari jarraiki, aktiboki parte hartu du nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzeko saiakeretan. Gainera, Irlandak behin baino gehiagotan parte hartu du Segurtasun Kontseiluan: 1962an, 1981ean eta 2000. urtean. Europar Batasuneko kide izaki, hainbat eskubide eta betebeharrak ditu, gainerako 26 kideek bezalaxe.

Irlandak harreman berezia du Estatu Batuekin, neurri handi batean, Estatu Batuetako enpresa multinazional askok filialak dituztelako uhartean. Bestalde, Irlandak menpekotasun handia du Erresuma Batuekiko, eta gainera harekin du lurreko muga bakarra. Britainia Handia berriki irten da Europar Batasunetik, eta hasi da trantsizio-aldia, hots, Erresuma Batuak gainerako herrialdeekin izango dituen harremanak negoziatzeko epea. Denbora-tarte hori biziki garrantzitsua izango da Irlandarentzat, txosten honetan ikusi dugun bezala, menpekotasun handia duelako Erresuma Batuekiko, eta bi alderdiei interesatzen zaielako harreman onak bermatuko dituen akordio bat lortzea.

7.2. Merkataritza-akordioak

Gorago azaldu bezala, Europar Batasuneko kide denez, Irlandak merkataritza libreko akordio bat du, besteak beste, Batasuneko gainerako herrialdeekin. Gainera, Europar Batasunak hainbat akordio komertzial ditu hirugarren herrialdeekin, eta hauek dira esanguratsuenak:

- Japonia: Merkataritza libreko akordio hori negoziatzeko prozesua 2017an hasi zen, baina ez zen indarrean sartu 2019ko otsailera arte.
- Singapur: Merkataritza libreko akordio hori 2018ko urrian sinatu zen. Urte askoan negoziatu zen ASEAN eremuaren (Asia hego-ekialdeko Nazioen Elkarte) eta EBren artean.
- Mercosur: 2019ko uda bukaeran amaitu ziren Hego Amerikako bloke komertzialaren (Argentina, Uruguai, Brasil eta Paraguai) eta EBren artean merkataritza libreko akordio bat sinatzeko negoziazioak.
- Kanada: Hauxe da sinatu den azken akordio komertziala. Akordioak CETA du izena, eta bidea erraztuko du ondasun eta zerbitzuak esportatzeko. Gainera, onuragarri izango da bi alderdietako hiritar eta enpresentzat.



- Acuerdos comerciales en vigor
- Acuerdos comerciales en proceso de negociación

Halere, Europar Batasunak (Irlanda barne) baditu akordio gehiago beste herrialde batzuekin, esaterako, Vietnam edo Txilerekin. Ezin dugu ahaztu Europar Batasuna eta bere 27 kideak akordio berri -eta garrantzitsu- bat negoziatzen ari direla Erresuma Batuekiko (EBko kide ohia) merkataritza eta harremanak arautzeko. Gorago azaldu bezala, akordio komertzial berri hau biziki garrantzitsua da Europar Batasun osoarentzako, baina batik bat Irlandarentzako, bere bazkide komertzial garrantzitsuena baita.



8. ASKOTARIKO ARRISKUAK

8.1. Herrialde-arriskua

12. taula: COFACEren herrialde-arriskuaren balorazioa ⁸

HERRIALDEA	HERRIALDE-ARRISKUA	NEGOZIOETARAKO GIROA	OHARRAK
			<p>-INDAR-GUNEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> Lan- eta ondasun-merkatu malguak Enpresa-ingurune abantailatsua, zerga erakargarriak Enpresa multinazionalen presentzia, batik bat AEBetakoena, finantza sektoreko enpleguaren % 22 eta balio erantsiaren % 63 ordezkatzan dutenak
IRLANDA	A3	A1	<p>-AHULUNEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> Menpekotasun handia du egoera ekonomikoarekiko eta AEBetako nahiz EBko erregimen fiskalekiko Kaltebera da atzerriko enpresen estrategia-aldaketen aurrean Zor publiko eta pribatu handia Oraindik ezin da jakin nolakoak izango diren Erresuma Batuekiko etorkizuneko harremanak

⁸ **HERRIALDE-ARRISKUAREN ETA NEGOZIOETARAKO GIROAREN ANALISIA.** Arrisku orokorra kalkulatzeko, enpresa-faktore espezifikoak eta enpresaren herrialdeari dagozkion faktoreak konbinatu dira. Gure analisiak **zazpi mailako sailkapen** bat erabiltzen du, **arrisku txikienetik handienara** doana: **A1, A2, A3, A4, B, C eta D.**



9. ONDORIOA

Krisi ekonomikoak gogor kolpatu zuen Irlandako ekonomia. Halere, Europar Batasunaren eta Nazioarteko Diru Funtsaren erreskate ekonomikoari esker (2013aren amaieran), hazkunde ekonomikoaren bideari heldu dio, eta azkarren hazten ari den Europako ekonomia bihurtu da. *Per capita* BPGari dagokionez, bere batez besteko garapen maila 76.044 eurokoa da.

Halere, hazkunde ekonomiko hori moteldu egin da 2020an, pandemiaren eta Brexitaren ondorioz. Gorago aipatu bezala, Erresuma Batuaren eta Europar Batasunaren arteko negoziazioaren emaitzak baldintzatuko du desazelerazioa. Bestalde, Irlandak nazio mailako bi itxialdi agindu behar izan ditu koronabirusaren hedapena geldiarazteko, eta horrek ondorio larriak izan ditu herrialdeko ekonomian. Halere, badirudi etxeetako kontsumoa eta Irlandako gobernuak emandako laguntzak lagungarri izango direla 2019ko antzeko zifretara itzultzeko.

Balantza komertziala beti izan da defizitarioa, alde handia baitago Euskadik Irlandara egiten dituen esportazio eta inportazioen artean. Horrez gain, aipatzekoa da Irlandak inbertsio asko -zuzenak edo zorrokoak- jasotzen dituela multinazional handiengandik (asko estatubatuarrak) bere politika fiskala dela medio. Halere, aurreikuspenek diote 2019a bezalako aparteko urtearen ondoren, multinazionalen ikerketa eta garapeneko (I+G) inbertsioek ekarpen negatiboagoa egingo diotela hazkundeari. Bestalde, aurreikusten da kanpo-merkataritzak ekarpen positiboa egingo duela, esportazioek indartsu jarraitu behar bailukete ekonomia globalaren eragina gutxiago jasaten duen sektore farmazeutikoari esker (2018an esportazioen % 32, horietatik % 52 produktu kimiko organikoak).

Garrantzitsua da aipatzea Irlanda Europar Batasuneko kide dela, eta badituela hainbat abantaila horregatik. Irlandako txanpona euroa da, beraz, ez dago txanpona aldatzen ibili beharrik.

2020a urte konplikatu izaten ari da Irlandarentzat; Erresuma Batuaren eta Europar Batasunaren arteko negoziazioak bukatu eta koronabirusa kontrolatu arte itxaron beharko da jakiteko zenbaterainokoak diren kalteak eta zenbat denbora beharko duen suspertzeko eta urtearen hasieran zeuzkan zifretara itzultzeko.



10. ERREFERENTZIAK

- Munduko Bankua (2019): Langabezia guztira (biztanleria aktibo osoaren %-a) (NLEren modelatuaren estimazioa)-Irlanda.
- BasqueTrade Office in Ireland Database (2020ko urria).
- Central Intelligence Agency (2020ko maiatza): Ireland World Factbook.
- CIVEX (2020ko iraila): Euskadiko Katalogo Industrialia eta Enpresa Esportatzaileen Katalogoa. https://www.euskadi.eus/x76aAppWar/buscador_avanzado/buscadorAvanzado
- COFACE for trade (2020ko apirila): Irlandako herrialde-arriskua. <https://www.coface.com/Economic-Studies-and-Country-Risks/Ireland>
- COMTRADE Database (2020ko abendua): Ireland: imports and exports. <https://comtrade.un.org/data/>
- DATACOMEX (2020ko azaroa): Espainiako kanpo-merkataritzaren estatistikak. Irlanda: inportazioak eta esportazioak.
- EUSTAT (2020ko abendua): Kanpo-merkataritzaren estatistika (ECOMEX). Euskal Autonomi Erkidegotik eginiko esportazioen rankinga herrialdeka. 2019. https://www.eustat.eus/elementos/ele0005700/Ranking_de_las_exportaciones_de_la_CA_de_Euskadi_por_paises_p/tbl0005722_c.html
- EUSTAT (2020ko abendua): Kanpo-merkataritzaren estatistika (ECOMEX). Euskal Autonomia Erkidegoko inportazioen rankinga herrialdeka. 2019. https://www.eustat.eus/elementos/ele0005700/Ranking_de_las_importaciones_de_la_CA_de_Euskadi_por_paises_p/tbl0005723_c.html
- Nazioarteko diru funtsa (NDF) (2019ko azaroa): Irlandako datuak. <https://www.imf.org/en/Countries/CHN#data>
- Nazioarteko Diru Funtza (NDF) (2020ko urria): Munduko ekonomiaren perspektiben azken hazkunde proiektzioak. <https://www.imf.org/es/Publications/WEO/Issues/2020/04/14/weo-april-2020>
- Nazioarteko Diru Funtza (NDF) (2020ko urria): World Economic Outlook Database: Irlanda. https://www.imf.org/external/pubs/ft/weo/2020/01/weodata/weorept.aspx?pr.x=76&pr.y=14&sy=2014&ey=2021&scsm=1&ssd=1&sort=country&ds=.&br=1&c=924&s=NGDP_RPCH%2CPPPDP%2CNGDPRPPPCPCH%2CCPIPCH%2CPCPIEPCH%2CLUR%2CGGXCNL_NGDP%2CBCA_NGDPD&grp=0&a=
- Nazioarteko Diru Funtza (NDF) (2019ko urria): World Economic Outlook Database. Global Manufacturing Downturn, Rising Trade Barriers. <https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2019/10/01/world-economic-outlook-october-2019>
- Nazioarteko Diru Funtza (NDF) (2020ko apirila) World Economic Outlook Database. The Great Lockdown. <https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2020/04/14/weo-april-2020>



- ICEX (2020ko uztaila): Irlanda: Sozietateen zergak Irlandan. <https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/noticias/irlanda-recauda-mas-impuestossociedades-multinacionales-new2020856576.html?idPais=IE>
- ICEX (2020ko abendua): Irlanda: Aukera-sektoreak <https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/invertir-en/sectores-de-oportunidad/index.html?idPais=IE>
- ICEX (2020ko abendua): Irlandaren Marko Politikoa: <https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-pais/informacion-economica-y-comercial/marco-politico/index.html?idPais=IE>
- ICEX (2020ko abendua): Kanpo-sektorea. Irlanda. <https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-pais/informacion-economica-y-comercial/sector-exterior/index.html?idPais=IE>
- International Trade Center (2020ko azaroa): <http://www.intracen.org>
- Santander Trade (2020ko azaroa): Irlanda: aurkezpen orokorra <https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/irlanda/presentacion-general>
- Santander Trade (2020ko abendua): Irlanda: Politika eta ekonomia. Testuinguru ekonomikoa. “Abagune ekonomikoa”. <https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/irlanda/politica-y-economia>
- Santander Trade (2020ko abendua): Irlanda: Politika eta ekonomia. Marko politikoa. “Egungo testuinguru politikoa”. <https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/irlanda/politica-y-economia>
- Santander Trade (2020ko abendua): Kanpo-merkataritzaren zifrak Irlandan. <https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/irlanda/cifras-comercio-exterior>
- Trading economics (2020ko azaroa): Ireland: Economic indicators. <https://tradingeconomics.com/ireland/indicators>

© Agencia Vasca de Internacionalización
Basque Trade and Investment S.A.



**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
BASQUE GOVERNMENT